**MESA SECTORIAL DE PERSONAL DOCENTE NO UNIVERSITARIO**

**ACTA del día 19 de diciembre de 2012**

**ASISTENTES:**

**Representantes de las Organizaciones Sindicales:**

**AFAPNA:**
Pablo Arriazu Amat
Begoña Iriarte Artola

**APS:**
Fernando Carmona Ruiz

**CC.OO:**
Itziar Usandizaga Zabalegui

**STEE-EILAS:**
Kepa Yécora Jiménez

**LAB:**
Expe Iriarte de Vicente

**ELA:**
Ander Pascual Ariz

**Representantes de la Administración:**
Iñigo Huarte Huarte
David Herreros Sota
Begoña Unzué Vela
Isabel Mendaza Marrodán
Amaia Goñi Lacabe
Juan Ramón Elorz Domezain
Beatriz Ayerra Gamboa

En Pamplona, siendo las 10:30 horas del 19 de diciembre de 2012, en la sala Santo Domingo de la sede del Departamento de Educación, se reúnen las personas reflejadas al margen en calidad de representantes de la Administración y de las Organizaciones Sindicales que se citan, a fin de tratar los asuntos del siguiente

**ORDEN DEL DÍA:**

1°. Plantillas del concurso de traslados.
2°. Ruegos y preguntas.

**1°. Plantillas del concurso de traslados.**

,

# UNIBERTSITATETIK KANPOKO IRAKASLEEN MAHAI SEKTORIALA

## 2012ko abenduaren 19ko AKTA

**BERTARATUAK:**

**Sindikatuen ordezkariak:**

**AFAPNA:**

Pablo Arriazu Amat

Begoña Iriarte Artola

**APS:**

Fernando Carmona Ruiz

**CCOO:**

Itziar Usandizaga Zabalegui

**STEE-EILAS:**

Kepa Yécora Jiménez

**LAB:**

Expe Iriarte de Vicente

**ELA:**

Ander Pascual Ariz

**Administrazioaren ordezkariak:**

Iñigo Huarte Huarte

David Herreros Sota

Begoña Unzué Vela

Isabel Mendaza Marrodán

Amaia Goñi Lacabe

Juan Ramón Elorz Domezain

Beatriz Ayerra Gamboa

Iruñean, 2012ko abenduaren 19ko 10:30ean, Hezkuntza Departamentuaren egoitzako Santo Domingo aretoan bildu dira alboan ageri diren Administrazioaren ordezkariak eta sindikatuen ordezkariak, ondoko gai zerrendako gaien gainean aritzeko:

**GAI ZERRENDA:**

1-. Lekualdatze lehiaketako plantillak.

2-. Galde-eskeak.

**1-. Lekualdatze lehiaketako plantillak.**

La Directora del Servicio de Recursos Humanos plantea a los sindicatos si quieren formular alguna alegación o propuesta en relación con las plantillas del concurso de traslados. Si bien, les informa que podrán remitir por escrito las alegaciones que estimen convenientes hasta el miércoles 26 de diciembre.
AFAPNA pregunta si junto con las vacantes se publicará la Resolución en virtud de la cual los Maestros pueden solicitar la supresión de su puesto de trabajo.
La Directora del Servicio de Recursos Humanos informa que la Resolución de supresión se publicará en el BON y las vacantes se publicarán el mismo día en la página web del Departamento de Educación.
STEE-EILAS solicita que se dé un plazo más amplio para poder revisar con más detalle las plantillas.
La Directora del Servicio de Recursos Humanos contesta que, debido al calendario fijado por el Ministerio, a mediados del mes de enero hay que comenzar a enviar los ficheros de vacantes a Madrid y, por lo tanto, no se puede dar más tiempo. No obstante, informa que a la vuelta de las vacaciones de Navidad, hacia el día 14 de enero, se convocará una Mesa Sectorial para responder a las alegaciones y propuestas que se reciban por parte de los sindicatos antes del 26 de diciembre. Asimismo, informa que el día 15 o el 16 se publicarán las vacantes provisionales.

AFAPNA plantea su rechazo a que las plantillas se publiquen con posterioridad al plazo de presentación de instancias en el concurso de traslados, ya que entienden que de esta manera se impide el ejercicio de los derechos preferentes. Solicitan que no salgan vacantes de Educación Física y de Música con perfil plurilingüe, ya que la O.F. 110/2011 no exige que estas materias se impartan en inglés. También solicitan que no se minoren plazas de Educación Física y de Música castellano en centros plurilingües.

Igualmente, solicita que se permita a los provisionales obtener su primer destino definitivo en cualquier especialidad por la que están habilitados y no necesariamente por la especialidad e idioma de oposición. Esta posibilidad es permitida en otras Comunidades Autónomas.

LAB denuncia que se ofertan muy pocas vacantes y que existen muchas minoraciones de plazas debido a la política adoptada por el Departamento. Manifiesta su rechazo a la misma.

ELA solicita la elaboración de las plantillas conforme a la normativa anterior que establecía 17 horas para los Profesores de Enseñanza Secundaria.

STEE-EILAS solicita conocer los criterios de elaboración de las plantillas.

El Director del Servicio de Inspección Educativa explica que los criterios seguidos para la elaboración de las plantillas son los mismos que se han aplicado en los últimos concursos de traslados, si bien con las modificaciones normativas introducidas respecto a la jornada lectiva. Informa que al término de la reunión cada sindicato puede coger un escrito en el que vienen recogidos los criterios seguidos.

CCOO pregunta si todas las jubilaciones que se han producido se han incorporado en la plantilla y si las que se produzcan con posterioridad se incluirán en la misma.

La Directora del Servicio de Recursos Humanos señala que todas las jubilaciones producidas hasta los puentes forales se han incorporado a la plantilla. Si bien, matiza que no todas las jubilaciones generan vacantes, puesto que si se jubila un funcionario con una plaza a minorar, no puede ofertarse su vacante. Añade que las jubilaciones, fallecimientos y excedencias que se produzcan hasta mediados del mes de febrero se incorporarán con posterioridad en las vacantes definitivas.

**2º. Ruegos y preguntas.**

Las organizaciones sindicales solicitan el abono de la paga extra del mes de diciembre y manifiestan su rechazo a la política seguida por el Gobierno de Navarra. Denuncian la pérdida del poder adquisitivo del personal al servicio de las Administraciones Públicas en los últimos años y manifiestan que hay otros muchos gastos que se podrían evitar. Asimismo solicitan que se cotice al sistema de previsión social que corresponda sin tener en cuenta el descuento de la paga extra.

AFAPNA solicita que el Gobierno de Navarra cotice los conceptos de paga extra que sus trabajadores no van a percibir.

ELA pregunta si, al no abonarse la paga extra de diciembre, se va a devolver la cantidad proporcional retenida a aquellos trabajadores que han ejercicio el derecho a la huelga. Solicita que nadie cobre este mes de diciembre menos del SMI y que a los interinos que ahora están en paro no se les obligue a devolver la parte proporcional de la paga extra que cobraron en agosto.

La Directora del Servicio de Ordenación y Relaciones Laborales de la Dirección General de Función Pública contesta que se va a devolver la parte proporcional correspondiente a aquellos que realizaron huelgas.

ELA y CCOO solicitan que el personal que no quiera cobrar la paga extra de junio el día 3 de enero de 2013, pueda solicitarlo y se establezca un procedimiento para ello. Los representantes de la Administración informan a este respecto que trasladarán la petición a los órganos competentes para su análisis.

CCOO señala que hay un desfase entre los datos de que disponen correspondientes al número de vacantes ofertadas en el curso 2011-2012 y 2012-2013 con los datos enviados por el Servicio de Recursos Humanos. Solicita la remisión de los datos de matrícula de los centros concertados en formato excel.

La Directora del Servicio de Recursos Humanos informa que los datos enviados se han generado de SAP que es el programa en el que constan todos los tipos de contratos que se formalizan y que la consulta se ha hecho teniendo en cuenta todos los contratos de vacantes formalizados en el curso 2011-2012 y en lo que llevamos del curso 2012-2013.

APS solicita que se informe sobre las negociaciones del Consejero de Educación en el Ministerio de Educación respecto del borrador de la Ley de Educación.

El Director General de Recursos Educativos señala que ya hay cauces abiertos suficientes para que los sindicatos puedan participar y permanezcan informados.

ELA solicita información sobre el crédito sindical para el año 2013. La Directora del Servicio de Ordenación y Relaciones Laborales de la Dirección General de Función Pública informa que el crédito sindical para el año 2013 va a continuar reducido un 10 %.

ELA solicita información sobre qué criterio se ha adoptado en relación con la previsión recogida en las instrucciones de funcionamiento de los Conservatorios en la que se contempla que los profesores puedan compensar horas en el calendario del curso que viene en función de tareas desarrolladas este curso. Añade que para los próximos cursos solicita que se negocien en la Mesa Sectorial las instrucciones de funcionamiento de los centros. El Director General de Educación, Formación Profesional y Universidades respecto a la cuestión planteada, se compromete a analizar el tema y dar contestación en breve.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 11:40 horas en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

---

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak sindikatuei galdetu die lekualdatze lehiaketaren plantillaren inguruko alegazio edo proposamenik egin nahi duten. Dena den, jakinarazi die komenigarritzat dituzten alegazio oro idatziz igortzen ahal dituztela abenduaren 26a, asteazkena, bitartean.
AFAPNAk galdetu du maisu-maistrek beren lanpostua kentzeko eskatzea ahalbidetzen duen ebazpena lanpostu hutsekin batera argitaratuko den.
Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak jakinarazi du lanpostuak kentzeko ebazpena NAOn argitaratuko dela eta lanpostu hutsak egun berean argitaratuko direla baina Hezkuntza Departamentuaren webgunean.
STEE-EILASek epe luzeagoa eskatu du plantillak xeheago aztertu ahal izateko.
Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak erantzun du Ministerioak ezarritako egutegiagatik urtarrilaren erdialdean hasi beharra dutela lanpostu hutsen fitxategiak Madrila igortzen eta, beraz, ez dagoela denbora gehiago ematerik. Hala ere, azaldu du Eguberritako oporretatik bueltan, urtarrilaren 14aren inguruan, Mahai Sektoriala deituko dutela sindikatuengandik abenduaren 26a baino lehen jasotzen dituzten alegazio eta proposamenei erantzuteko. Era berean, jakinarazi du 15ean edo 16an argitaratuko direla behin-behineko lanpostu hutsak.

AFAPNAk adierazi du ez dagoela ados plantillak lekualdatze lehiaketako instantziak aurkezteko epearen ondoren argitaratzearekin, uste baitute horrela lehentasunezko eskubideak erabiltzea galarazten dela. Eskatu dute ez daitezela atera profil eleanitza duten Gorputz Hezkuntzako eta Musikako lanpostu hutsak, 110/2011 Foru Aginduak ez baitu exijitzen irakasgai horiek ingelesez ematea. Halaber, eskatzen dute ez daitezela murriztu ikastetxe eleanitzetako gaztelaniazko Gorputz Hezkuntzako eta Musikako postuak.

Era berean, eskatzen du behin-behinekoei beren lehen behin betiko destinoa gaituta dauden edozein espezialitatetan lortzen utzi diezaietela, eta ez nahitaez oposizioko espezialitate eta hizkuntzan. Beste erkidego autonomo batzuetan uzten dute aukera hori.

LABek salatu du oso lanpostu gutxi eskaintzen direla eta postu murrizketa asko daudela Hezkuntza Departamentuak hartutako politikaren ondorioz. Politika hori baztertzen duela adierazi du.

ELAk eskatu du aurreko araudiaren arabera prestatu daitezela plantillak, hots Bigarren Hezkuntzako irakasleei 17 ordu esleituta.

STEE-EILASek plantillak prestatzeko irizpideak jakitea eskatu du.

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko zuzendariak azaldu du plantillak prestatzeko erabili diren irizpideak azken lekualdatze lehiaketetan jarraitutako berak direla, baina eskola lanaldiari dagokionez sartutako aldaketekin. Jakinarazi du jarraitutako irizpideak jasotzen dituen idatzia hartzen ahal dutela sindikatuek bilera bukatzean.

CCOOk galdetu du ea izandako erretiro guztiak sartu diren plantillan eta aurrerantzean izaten direnak ere sartuko diren bertan.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak esan du zubi foralak arte izandakoak sartu direla plantillan. Hala ere, zehaztu du erretiro guztiek ez dituztela postu hutsak sortzen, murriztu beharreko lanpostua duen funtzionario batek erretiroa hartzen duenean ez delako haren postu hutsa eskaintzen ahal. Gaineratu du otsailaren erdialdea arte gertatzen diren erretiro, heriotza eta eszedentziak aurrerago gehituko direla, behin betiko lanpostu hutsetan.

**2-. Galde-eskeak.**

Sindikatuek abenduko aparteko ordainsaria ordaintzeko eskatu dute eta adierazi dute Nafarroako Gobernuak jarraitutako politikaren aurka daudela. Salatu dute azken urteetan administrazio publikoen zerbitzura ari diren langileek erosteko ahalmena galdu dutela eta adierazi dute saihesten ahal diren beste

hainbat gastu daudela. Halaber, eskatu dute dagokion aurreikuspen sistemari kotizatu dadila aparteko ordainsariaren deskontua aintzat hartu gabe.

AFAPNAK eskatu du Nafarroako Gobernuak kotizatu ditzala bere langileek jasoko ez duten aparteko ordainsariaren kontzeptuak.

ELAk galdetu du, abenduko aparteko ordainsaria ordaindu ezean, greba eskubidea baliatu duten langileei atxikitako zenbateko proportzionala itzuliko dieten. Eskatu du hilabete horretan inork ez dezala kobratu LGSa baino gutxiago eta orain langabezian dauden bitartekoak ez ditzatela behartu itzultzera abuztuan kobratu zuten aparteko ordainsariaren zati proportzionala.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Lan Harremanen eta Antolamenduaren Zerbitzuko zuzendariak erantzun du greba egin zutenei itzuliko zaiela dagokien zati proportzionala.

ELA eta CCOOk eskatu dute ekaineko aparteko ordainsaria 2013ko urtarrilaren 3an kobratu nahi ez dutenei hori eskatzeko aukera eman diezaietela eta horretarako prozedura ezarri dadila. Administrazioaren arduradunek horri buruz jakinarazi dute eskaera eskumena duten organoei helaraziko dietela aztertu dezaten.

CCOOk esan du 2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetako lanpostu hutsen kopuruaz dituzten datuak ez datozela bat Giza Baliabideen Zerbitzuak igorritakoekin. Eskatu du itundutako ikastetxeetako matrikula datuak excel formatuan igorri ditzatela.

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak azaldu du igorritako datuak SAP programaren bidez lortuak direla, programa horrek jasotzen dituelako egiten diren era guztietako kontratuak, eta kontsulta egin dela 2011-2012 ikasturtean zehar eta orain arte 2012-2013an egindako lanpostu hutsen kontratu guztiak kontuan izanik.

APSk eskatu du informazioa eman dezatela Hezkuntzari buruzko lege zirriborroaren gaineko Hezkuntzako kontseilariaren eta Hezkuntza Ministerioaren arteko negoziazioei buruz.

Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak esan du dagoeneko irekita daudela nahikoa bide sindikatuek parte hartzen ahal dezaten eta informaturik izan daitezen.

ELAk informazioa eskatu du 2013rako kreditu sindikalari buruz. Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Lan Harremanen eta Antolamenduaren Zerbitzuko zuzendariak jakinarazi du 2013rako kreditu sindikalak %10 murriztua izaten jarraituko duela.

ELAk esan du Kontserbatorioko funtzionamendu arauetan jasota dagoela irakasleek aurten burututako lanen arabera datorren ikasturteko egutegian orduak konpentsatzeko aukera, eta informazioa eskatu

du aurreikuspen horri dagokionez hartu den irizpideaz. Gaineratu du datozen ikasturteetarako eskatzen duela Mahai Sektorialean negoziatu daitezela ikastetxeen funtzionamendu arauak. Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusia konprometitu da planteatutako gaia aztertzen eta aurki erantzuten.

Besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 11:40an, goiburuko tokian eta egunean.

**POR LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA, DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN IZENEAN, HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA,**

**POR AFAPNA,**
**AFAPNAren izenean,**

**POR APS,**
**APSren izenean,**

**POR CC.OO,**
**CCOOren izenean,**

**POR UGT,**

**POR STEE-EILAS,**

**POR ELA,**

**POR LAB,**
**LABen izenean,**

**LA SECRETARIA,**
**IDAZKARIA,**

**Beatriz Ayerra Gamboa.**